



Lurralde Historikoa: Araba
Eskualdea: Arabako Mendialdea
Udalerrria: Urizaharra / Lagran
Hurbileko herria: Urizaharra / Pipaon
Ibaia: Jugalez
Isurialdea: Mediterranea
Unitate hidrologikoa: Jugalez
UTM (datum ETRS89): 529.267 / 4.718.170
523.567 / 4.721.535
Altitudea: 843 m/ 714 m

Jugalez ibaiaren goi-ibarra



Kokapena. Nola heldu:

Jugalez ibaiaren goi-ibarra Arabako Lurralde Historikoko hego-mendebaldean kokatzen da, Kanpezu-Arabako Mendialdea eskualdean, Pipaon eta Urizaharra herrien artean. Pipaon herrira iristeko Urizaharratik joan gaitezke, A-3130 errepidetik hain zuzen. Gero A-4152 errepidea hartuko dugu eta bide horrek ibilbidea hasiko dugun herrira eramango gaitu.

Ibilbidearen nondik norakoak:

Ibilbidea Pipaon herrian hasten da GR-1 (6. etapa, Pipaon-Urizaharra) bidexka historikoan aurrera jarraituz. Hirigunetik A-4152 errepidea hartuko dugu A-3130 bidearekin lotu arte; ezkerrera bira egin beharko dugu errepidearen eskuinaldean hasten den lehenengo pistara heltzeko. Bidexkatik jarraituko dugu ibaiaren parean doan basoan barrena, behin baino gehiagotan ibaia gurutzatuz, eta 5,4 km ibili ondoren, A-4151 errepidera heldu arte. Horixe da ibilbidearen tarterik interesgarriena, basoaldean barrena baitoa. Edonola ere, GR1 bidexkan aurrera jarrai dezakegu 2,5 km-tan zehar Urizaharraraino eta bertan errotaren iturburua ikusi. Iturburu hori Toloño mendilerro delako Unitate Hidrogeologikoko isurgune nagusia da, urtean 230 l/s-ko batez besteko ekarpena eginez. Ibilbidean zehar Jugalez ibaiaren aldameneko korridoretik paseo eder batez gozatzeko aukera izango dugu, goiko tarte horrek kontserbazio-egoera ona agertzen baitu.



Ingurumen-garrantzia:

Jugalez ibaia San Leon mendi inguruetan (Toloño mendilerroa) jaio eta Ebro ibaian isurtzen ditu bere urak, Santa Cruz del Fierrotik gertu. Ibaiaren goi-ibarrean egoera ona dauka ibaiak, ibaiertzeko igarobidea kontsolidatua izanik. Arroaren goialdean sastrakak eta baso azpi-mediterraneoko eraketak dira nagusi. Toloño mendilerroaren inguruetan, aldiz, harizti eta pagadi azidofiloak txilardi zein larre eta belardi eremu txikiekin tartekatzen dira.

Babes-figurak:

- . Natura 2000 Sarea
- . Babestutako eremuaren izena: Toloño mendilerroa
- . Linea elektrikoetatik babesteko hegazti-faunaren babesgunea.

Bisita egiteko sasoi egokia:

Ibilbidea urteko edozein garaitan egin daiteke baina, eurite sasotik kanpo, ibaiaren tarte honetako ibilgua lehorturik aurki dezakegu, infiltrazio prozesu natural baten ondorioz.






MIDE		Jugalez ibaiaren goi-ibarra	
<			



(1) Udako baldintzetan, elurrik gabe. MIDE irizpideak hartuta, geldialdirik gabe





Jugalez ibaiaren goi-ibarra

